

## ANGOSTOKO URREZKO EZTEGUAK

1

Maiatzaren erdian  
bost egun Angoston,  
berrogeita hamabi  
andra eta gizon.  
Anaiarte gozoan  
zer bake zorion!  
Danagaitik Jaunari ai,ai,ai  
bihotzez esker on.

2

Manolo ta Gloria,  
Manuel ta Austiña,  
Esteban ta Jesusa,  
nun talde bardina?  
Horra hiru bikote  
ezkontzaz egina,  
urrezko eztaietan ai.ai.ai  
hau poz atsegina!

3

Aupa ezkonbarriak,  
zer poz ta umore,  
urrezko argiz dizdiz  
alai ta dotore.  
Zuentzat dira gure  
Zorion ta lore,  
zuentzat gure otoitz ai.ai.ai  
txalo ta ohore,

4

Gaur Mezako opari,  
oi Jesus laztana,  
hiru bikote dira  
batuta Zeugana.  
Bedeinkatu gaur euren  
maitasun ta lana,  
lagun hartuta gatoz ai.ai.ai  
Angostoko Ama.

5

Hau da ospakizuna,  
benetan itzela!  
Honek merezi dau, bai,  
urrezko txapela.  
Guretzat be izan da  
eztegu-hotela...  
Hau da jubilatzea ai,ai,ai  
kristau bat bezela.

6

Horra zertara goazen  
pozik Angostora,  
eta zertan emoten  
hainbeste denpora:  
Adiskideok batuz  
alkarren ondora,  
Jaunak egiten gaitu ai,ai,ai  
pozez zora-zora.

A. Martzel

